



2023UDOS0001

Andoingo Udala

Akta: Osoko Udalbatza

OHIKO BILKURA: 2023/01/26

Acta: Pleno Municipal

SESIÓN ORDINARIA: 26/01/2023

Lekua: Batzar Aretoa / Lugar: Salón de Plenos**Bildutakoak: / Asistentes:****Alkatea / La Alcaldesa** Maider Lainez Lazcoz**Zinegotziak: / Concejales/as:**

EH-Bildu
Andoni Alvarez Lete
Estibalitz Mujika Tolaretxipi
Jon Zulueta Berastegi
Garazi Usandizaga Zubiria
Julian López Aracama
M^a Teresa Etxeberria Arteun
Xabier Fondón Pajares

PSE-EE
José Luis Verdasco Gutierrez
Ascensión Parrón Peguero
Petra Romero Pozo

EAJ-PNV
Maria Jose Izagirre Iturzaeta
M^a Sagrario Ruiz Fernández
Imanol Goenaga Egibar

Elkarrekin Podemos M^a Teresa Santana Rubio

Akta Zenbakia	00000001
Eguna	2023/01/26
Hasiera	19:00
Amaiera	19.30

Idazkaria:

María Uriarte Zurikaray

KontuhartzaileaMyriam Lizaso
Arruabarrena**Interpretaria**

Jon Unanue Lopez

Ez dira bertaratu eta adierazi dute: / No asisten y se excusan:

Oscar Mendo González - PSE-EE, quien delega su voto en José Luis Verdasco Gutiérrez
Alexander Huitzi Alfonso - EAJ/PNV

Gai Zerrenda:

- 2022/12/22an egindako batzarraren aktaren zirriborroa irakurri eta onartzea, bidezko bada.

Xedapenak

- Emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotutako jarduerak egiteko dirulaguntzak emateko Ordenantza hasierako izaeraz onartzea.
- EAJ/PNVko zinegotzien dedikazioaren aldaketa onartzea.
- Alkateak 2023ko urtarrilaren 17an emandako 100/2023 zenbakiko Ebazpenaren berri ematea.

Kontrola

- Ebazpenen berri ematea, zehazki, 2312/2022 zenbakidunetik 2505/2022 zenbakidunera.
- Galderak, eskaerak eta proposamenak.

Orden del Día:

- Lectura y aprobación, si procede, del borrador del acta de la sesión celebrada el 22/12/2022.

Parte Dispositiva

- Aprobación inicial de la Ordenanza reguladora de la concesión de subvenciones para la realización de actividades relacionadas con la igualdad de mujeres y hombres.
- Aprobar el cambio de dedicación de los/as concejales de EAJ/PNV.
- Dar cuenta de la Resolución de Alcaldía número 100/2023, de 17 de enero de 2023.

Parte de Control

- Dar cuenta de las Resoluciones comprendidas entre la n° 2312/2022 y la n° 2505/2022.
- Ruegos, preguntas y propuestas.



Nahikoa quorum dagoenez eta lehendakaria eta idazkaria ere bertan daudenez, bilkura baliozki eratzen da.

Alkate andreak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on eta ongi etorriak izan zaitezte 2023ko urtarrileko udalbatzar hontera.

“Muy buenas tardes a todas y a todos y bienvenidos al pleno de enero del 2023.

“Hasi baino lehen komentatzea Óscar Mendo zinegotzia bajaran dagoela eta orduan bere bozka Jose Luis Verdasco jaunarengan ordezkatzeko duela. Decíamos que antes de empezar comentar que el concejal Oscar Mendo está de baja y en consecuencia su voto recae en el concejal José Luis Verdasco.

“Hau esanda, hasiera emango genioke gaurko udal batzarrari. Milesker.”

1. 2022/12/22an egindako bileraren akta irakurri eta onartzea, bidezko bada.

Lehendabizi, 2022/12/22 datako batzarraldiari dagokion akta aztertzeari ekin zaio, eta inork ezer adierazi ez duela kontuan harturik, onartutzat eman da.

2. Emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotutako jarduerak egiteko dirulaguntzak emateko Ordenantza hasierako izaeraz onartzea.

Ikusirik emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotutako jarduerak egiteko dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza proposamena.

Ikusirik behin-behineko idazkariak 2023ko urtarrilaren 10ean egindako txostena.

Ikusirik Berdintasuna Batzorde Irizpenemaileak 2023ko urtarrilaren 19an emandako irizpena.

Romero andreak, Emakumezkoen eta Gizonezkoen Berdintasuneko Zinegotzi Ahalduak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bai, kaixo, arratsalde on guztioi. Dirulaguntzen ordenantza honen hasierako onarpena izango litzateke. Oinarri hauek Berdintasun Sailaren helburuekin koherenteak diren jarduerak proiektu gauzatzeko dira, hau da, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta desberdintasun hori sostengatzen duten gizarte ereduaren eraldaketa bultzatzeko eta asoziasismoa eta emakumeek Andoingo bizitza politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalaren eremu guztietan parte hartzea sustatzeko.

“Honako pertsona hauek jaso ahal izango dituzte dirulaguntza hauek. Emakume elkarteek edo irabazi asmorik gabeko mugimendu feministako erakundeek. Irabazi asmorik gabeko elkarteek mixtoek, baldin eta emakumeen berdintasunerako eta idazkaritzarako organo berariazko baldin badute edo beren helburuen artean emakumeen partaidetza soziopolitiko, kulturala sustatzea eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko egitasmoak edo jarduerak egitea baldin badago, eta diru laguntza jaso ahal izango dituzte, halaber, pertsona fisiko edo juridikoen elkarteek baldin eta nortasun juridikorik ez izan arren diruz lagundutako proiektuak edo jarduerarik egin baldin ditzakete. Eta aurtengo zuzkidura hamar mila eurokoa izango da.

“Decía que esta sería la aprobación inicial de la ordenanza de subvenciones del Departamento de Igualdad. Estas bases se contemplan para la relación de proyectos de actividades que sean coherentes con los objetivos del Departamento de Igualdad. Esto es, que favorezcan la igualdad de mujeres y hombres y de la transformación de los modelos sociales que sostienen esta desigualdad y que fomenten el asociacionismo y la participación de las mujeres en todos los ámbitos de la vida, política o económica, social, cultural de Andoain.

“Podrán optar a estas subvenciones las asociaciones de mujeres u organizaciones feministas sin ánimo de lucro, las asociaciones mixtas sin ánimo de lucro que, o bien, cuenten con un órgano específico de Igualdad o Secretaria de Mujeres o, bien, entre sus objetivos exista la promoción de la participación socio-política o cultural de las mujeres y la realización de proyectos o actividades de promoción de la igualdad entre hombres y mujeres. Y también podrán optar a estas soluciones, las agrupaciones de personas físicas o jurídicas que, aun careciendo de personalidad jurídica, puedan llevar a cabo proyectos y



actividades objeto de estas subvenciones y como he dicho antes, pues este año la dotación para esto será de 10.000 euros y añadir, sin más, que el borrador de estas bases se mandó con tiempo a las distintas asociaciones feministas y a los distintos grupos políticos para su debate y aportación y bueno, aquí traemos ahora ya, el resultado para su aprobación en pleno. Gracias.”

Alkate andreak proposamena eztabaidara jarri du eta parte-hartzerik izan ez denez, jarraian bozketara jarri du eta Udalbatzaren Osoko Bilkurak, aho batez, Alkatearen eta PSE-EE, EAJ-PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos zinegotzien aldeko botoekin, honako erabakia hartzen du:

1.- Onestea, hasierako izaeraz, Emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotutako jarduerak egiteko dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza.

2.- Administrazio-espedithea jendaurrean jartzea, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Andoingo Udaletxeko iragarki-taulan eta www.andoain.eus Udal web-orrian argitaratuz, 30 eguneko epeaz, interesdunek espedithea aztertu eta egoki iritzitako alegazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

3.- Espedithea jendaurrean dagoen bitartean alegaziorik edo iradokizunik aurkeztuko ez balitz, aipatu ordenantza behin-betiko izaeraz onetsita geratuko da.

3. EAJ/PNVko zinegotzien dedikazioaren aldaketa onartzea.

Ikusirik Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75. artikulua, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 32. artikulua eta Andoingo Udalaren Erregelamendu Organikoaren 30. artikulua.

Udal-talde politikoek eta udal-zereginen beharrezko dedikazioa eskatzen dutela kontuan hartuta.

Ikusirik Osoko Bilkuraren 2019ko ekainaren 26ko erabakia, eta haren ondorengo aldaketa, 2022ko apirilaren 28koa, lanaldi osoa eta partziala eta gutxieneko arduraldi-araubidea zehazten dituenak.

Ikusirik Andoingo EAJ-PNV udal-taldeak 2023ko urtarrilaren 13an aurkeztutako idazkia. Bertan, Alexander Huitzi Alfonso jaunaren dedikazioari egindako ukoa onartzeko eskatzen da, eta ukoa Mari José Izaguirre Iturzaeta, % 65eko dedikaziotik % 70era, eta Sagrario Ruiz Fernández, % 43tik % 59ra.

Ikusirik, Langilegoa, Antolakuntza eta Barne Araugintza Batzordeak 2023ko urtarrilaren 23ko bileran emandako aldeko irizpena.

Izagirre andreak, EAJ/PNV udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bai, arratsaldeon: Puntu hau eta bai hurrengo gai berdina dira. Bata bestearekin lotuta doaz. Orduan, azalduko det orain. Guztiok dakizuen bezala, gure zinegotziaren, Huitzi jaunaren lanak aldaketa bat izan du eta ezin izango du Euskara Sailaren ardurarekin aurrera jarraitu eta inkompatibilitateak dela eta ezin du Andoingo Udalaren soldata jaso. Beraz, hirugarren puntu honetan, Huitzi jaunak zuen liberazioaren portzentajearen banaketa da, bere liberazioaren %15a, sailaren ardura hartzen duen Txixu Ruiz zinegotziak hartuko du eta beste %5a, nik neuk hartuko dut.”

Guzti hau kontuan izanik, Udalbatzaren Osoko Bilkurak, aho batez, Alkatearen eta PSE-EE, EAJ-PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos zinegotzien aldeko botoekin, honako erabakia hartzen du:

1.- Aldatzea 2022ko apirilaren 28ko osoko bilkuraren erabakia, zeinaren bidez aldatzen baita 2019ko ekainaren 26ko osoko bilkuraren erabakia, dedikazio osoa edo partziala behar duten karguak eta kargu horien arduraldi-araubidea zehazten dituenak, honela:

- Alkateordea, Ekonomia Sustapen, Enplegu eta Gazteriako eta Zerbitzuetako zinegotzi ordezkaria; % 70eko dedikazioarekin beteko du bere kargua. Udalhitzeko 20. maila.
- Hezkuntza eta Kulturako zinegotzi ordezkaria, Euskararen Normalizaziorako zinegotzia eta hirugarren alkateordea; % 59ko dedikazioarekin beteko du bere kargua. Udalhitzeko 20. maila.

2.- Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki-oholean argitaratzea.

4. Alkateak 2023ko urtarrilaren 17an emandako 100/2023 zenbakiko Ebazpenaren berri ematea.

Alkate andreak hartu du hitza eta, 2023ko urtarrilaren 17an, 100 zenbakiko, berak emandako ebazpenaren berri eman du, zeinaren bidez, 153/2021 zenbakiko ebazpena indargabetzen da eta, Imanol



Goenaga Egibar jauna Tokiko Gobernu Batzordeko kide izendatzen da, Sagrario Ruiz Fernández andrea Hirugarren Alkateorde eta ENBKo udal batzorde irizpenemailearen Lehendakaritza eragilea izendatzen da.

Gaia eztabaidatu ondoren, Alkate andreak proposamena eztabaidara jarri du eta parte-hartzerik izan ez denez, Osoko Udalbatzarra jakinaren gainean geratu da.

5. Ebazpenen berri ematea, zehazki, 2312/2022 zenbakidunetik 2505/2022 zenbakidunera.

Alkateak zinegotzi guztiei jakinarazi die Alkatetzaren eta zinegotzien ebazpenak, nahiz eta edukiaren berri izan Udalbatzarra aurretik, beraien esku daudela, hain zuzen ere, 2312 zenbakidunetik 2505 zenbakidunera.

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Osoko Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

6. Galderak, eskaerak eta proposamenak.

Alkateak galde erreguen txanda ireki du eta lehenbizi, Alvarez jaunak, EH Bildu udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bai, arratsalde on denei. Guk CII gaiaren inguruan galdera batzuk ditugu eta horiek jarraian esango ditut. Dakizuen bezala, pasa den irailean Andoingo CII proiektuaren aurkako plataformak aurkeztutako mozioa onartu genuen hemen, aurkako botorik gabe eta bertan, CII proiektua geratzeko eskatzen zen. Eta jakin nahiko genukeen da, irailaz geroztik, Andoingo udalak, udal Gobernu honek zein urrats eman dituen eskaera hori aurrera eramateko, CII proiektua geratzeko.

“Bestetik, jakin nahi dugu, baita ere, dakizuen bezala, pasa den abenduan Espainiako Aurrekontuetan Andoingo udalari CII proiektu honen alternatiba aztertzeke, 476.000 euroko diru partida bat esleitu zitzaion eta jakin nahi dugu zein den egoera, partidarena, eta aurrekontuetan ez naiz sartuko den.

“Eta azkenik, jakin nahiko genuke baita ere, iraileko ezohiko udalbatza hartan onartu zen bezala, CII proiektua geratzeko hemendik aurrerako plangintza edo zein den.”

Alkate andreak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Vamos a tratar de ir explicando. En primer lugar, preguntaban por el pleno de septiembre. Además, señalan que efectivamente fue así, sin votos en contra, pero también queremos decir que ese día tampoco, ni por la mañana ni por la tarde, en ninguna de las votaciones se consiguió la unanimidad, que nos parece también, ya lo dijimos entonces y nos sigue pareciendo que es importante. Los pasos que se están dando, como todos ustedes saben, se pidió esa paralización, y se mandaron las alegaciones que presentaba el ayuntamiento, que por un lado eran las que se habían trasladado desde los departamentos técnicos municipales, pero que también se recogían las demandas y peticiones que habían hecho tanto empresas, como asociaciones, como en su momento eran el grupo que luego se ha conformado como plataforma. Y, en ese sentido estamos a la espera de que contesten a esas alegaciones.

“Con respecto a los Presupuestos Generales del Estado, en los cuales, como ustedes sabrán, en el Boletín Oficial del Estado, en el número 308 del 24 de diciembre del 2022, se ha publicado la Ley 31/2022 del 23 de diciembre, en la que se incluyen en los anexos dicha partida. Y desde el ayuntamiento ya hemos contactado con Madrid para que nos indiquen cuáles son los procedimientos a seguir para gestionar y cobrar ese dinero cuanto antes. Como se les explicó en la Comisión de Hacienda, por precaución no se metieran en los presupuestos del ayuntamiento de 2023, siguiendo la sugerencia que desde el Departamento de Intervención se nos había dado, hasta que recibamos esta notificación; que estamos preguntando cual es el procedimiento a seguir, según recibamos esa notificación y sepamos en qué términos van a ser, procederemos a incluir la partida en los presupuestos del 2023. Incluso si fuera necesario hacer un pleno extraordinario, como les adelantamos, pues no tendremos ningún problema en hacerlo, para que cuanto antes esté esa posibilidad en el Ayuntamiento. Y también aprovechamos la pregunta para informarles que vamos a comenzar una ronda de contactos con todos los partidos políticos, con las asociaciones, con las empresas, con todas las personas o entidades que puedan estar



afectadas. Voy a tratar de ir reuniéndome con todos ellos, porque, como les hemos dicho en numerosas ocasiones y también está saliendo ahora, nos parece que es muy importante que el Ayuntamiento, dé una respuesta unánime a esta situación y tratemos de ir todos unidos, con lo cual es importante que establezcamos una serie de puntos comunes en las que todos los grupos o asociaciones, empresas, podamos ir de la mano y vayamos juntos en ese en ese sentido. Entonces, por mi parte vamos a empezar esa ronda de reuniones para ir conociendo, pues eso, los diferentes puntos que podamos tener que sean comunes, porque, ya insistí el día 12 de septiembre, nos parece que es importante que desde el Ayuntamiento haya una posición única, lo más amplia posible, y, en ese sentido, seguiremos trabajando en ello. Mila esker.

Berriro ere, Alvarez jaunak, EH Bildu udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Gai hau ateratzen dugun bakoitzean, irailaren 12 hartan, goizekoaz eta arratsaldekoaz hitz egiten duzu. Behin baino gehiotan esan dugu, baina goizean bozkatu zena zen, batetik, alegazio partzialak, eta gero osoko alegazioa. Guk esan genuen osoko alegazioekin ados ginela, baina alegazio partzialekin ez. Zergatik?. Gure ustez CII proiektua kaltegarria delako Andoainentzat eta andoaindarrentzat. Eta benetan sinesten baldin badugu kaltegarria dela, proiektu txar bati alegazioak eginda ere, proiektu txarra izaten jarraitzen du. Eta arratsaldean bozkatu zena zen, proiektu hori gelditzea. Eta, ikusten dudanez, proiektu hori geratzeko ez da urratsik eman. Ez da inongo urratsik eman. Eta orain badirudi, erronda bat egingo duzula, eragile ezberdinekin, baina, ze gainera, 476.000 euro horiek lortu dira CIIa Andoainentzat eta andoaindarrentzat txarra denez, horren alternatiba bat sortzeko. Orduan, guk esaten genuena da, irailan esaten genuena zen. Goazen geratzea, goazen Aldundiari esatera Andoainen gehiengoak kontrako bozkarik gabe CII proiektua gelditzeko eskatu du. Orduan, indar gutzia goazen jartzea, CII proiektua geratzen.

“Batzar Nagusietan, abenduaren 14ean, aukera paregabea geneukan urrats bat emateko, baina zoritxarrez, zuen alderdia, PNVrekin batera, CII proiektuari jarritako alegazioak onartzearen alde egin zuen, eta CII proiektua geratzearen alde. Hor Podemos eta EH Bildu bakarrik gelditu ginen. Eta hemen dauzkak, eta gure ustez egin behar zena eta egin behar dena da CII proiektua gelditzeko urratsak eman.

“Denbora galdu dugu. Pauso batzuk galdu ditugu eta bestetik, alternatiba sortu, zeren bestela, zertarako nahi dugu alternatiba? CIIari alegazioak onartzea hobesten baldin badugu? Zertarako? Zuek erortzen zarete kontraesanean.

“Guk oso argi daukagu. Gure ustez CII proiektua geratu egin behar da. Proiektu hori kaltegarria da Andoainentzat eta andoaindarrentzat. Horretarako, eta Aldundiak proiektu hori inposatu dugunez, lortu dugu da diru-partida bat azterketa egiteko. Hori da gure postura. Ikusten dugunez, udal honetatik ez da inongo urratsik eman, CII proiektua geratzeko. Eta esan dudana bezala, abenduaren 14an, hemen dauzkak mozioak, Podemosek eta EH Bilduk, hemen bozkatu zuten gauza bera bozkatu genuen Batzar Nagusietan, aldiz, Alderdi Sozialistak alegazioak onartzearen alde bozkatu zuen.”

Alkate andreak, hartu du hitza eta honakoa erantzun du:

“Yo creo que este tema ya lo hemos comentado más veces y hay cosas que están muy bien que expliquemos, pero lo que no se puede hacer es contar medias verdades, o contar mentiras directamente. Y eso, desde luego, no se lo vamos a admitir, que cuando ustedes hablan de que el Partido Socialista votó con el Partido Nacionalista Vasco en Bidegi, para ...”

Alvarez jaunak, dio:

“Batzar Nagusietan esan dut.”

Jarraitzen du, Alkate andreak:

“No, no, pero también lo han comentado ustedes más veces y también lo dicen en la calle, porque así nos llega, que es para aceptar las alegaciones y el proyecto constructivo. Eso en ningún momento se produjo así. Lo que se votó en Bidegi fue un procedimiento administrativo que se había empezado en julio, al cual ningún partido político votó en contra. Ni EH Bildu, Elkarrekin Podemos en Bidegi, ni el Partido Nacionalista Vasco, ni Partido Socialista, ninguno. Pero, desde luego, Elkarrekin Podemos y EH Bildu tampoco. Y eso hay que decirlo alto y claro, porque, claro, luego parece que las cosas se hacen, y ahí es cuando se empieza un procedimiento administrativo para adjudicar un proyecto constructivo. Y,



como ustedes muy bien saben, una vez se inicia un procedimiento administrativo hay que darle salida, porque las empresas se presentan y las empresas han presentado unas propuestas, han presentado unas características, y entonces se decide cuál es la mejor. Y eso es lo que se hizo en ese pleno que dice usted de Bidegi. Lo que no se puede decir es que ese procedimiento se inicia ahí, ustedes no se opusieron. No se opusieron. Y eso hay que decirlo, no sé dónde estaban ustedes en ese momento, a primeros de julio, pero no se opusieron.”

“Entonces, no se puede ir diciendo que han sido el PNV y el Partido Socialista quienes han votado a favor de eso, porque lo que ahí se hizo fue dar solución a un procedimiento administrativo, que insisto, una vez que se ha iniciado lo que no tiene ningún sentido es que a empresas que cumplen todos los requisitos se vote en contra de que se ha adjudicado a la mejor empresa en cuanto a la puntuación que le corresponda, porque eso se ha hecho así y se hace así también en el ayuntamiento de Andoain y hasta donde yo sé, en todas las administraciones que corresponde. Y ahí EH Bildu y Elkarrekin Podemos, cuando se inició ese procedimiento administrativo, no votaron en contra. Y eso hay que repetirlo, porque luego da la sensación de que aquí, oye, yo no estaba, yo no; no, no ustedes estaban y no pusieron ningún impedimento a que eso siguiera su curso. Y eso es importante decirlo. Y no se pueden mezclar unas cosas con otras, porque luego, al final acabamos diciendo, empezamos con medias verdades y acabamos en mentiras y mentiras completas.

“El posicionamiento de EH Bildu, desgraciadamente, tampoco es desconocido, porque nosotros sabemos, en general, ustedes lo que les gusta es votar en contra de todos los proyectos, y siempre hablando de proyectos, impuestos y de proyectos, como acaban de decir. Y nosotros ya les explicamos que el hecho de no votar ahora en contra directamente de la propuesta que había, que iba a conllevar, no hacer alegaciones por parte del ayuntamiento que conllevaba, eso lo explicamos una y otra vez.

“Se explicó en agosto y se explicó durante el mes de septiembre. Eso iba a conllevar a que Diputación, si el ayuntamiento, como ayuntamiento, no presentaba ninguna alegación, íbamos a ir a diputación y diputación iba a seguir su curso con el procedimiento, contestándonos que, como no habíamos presentado ninguna alegación, seguían con el procedimiento y hubieran seguido.

“Entonces, eso no es que el ayuntamiento del municipio de Andoain se posiciona en contra de un proyecto que no nos gusta. Eso no es que las y los andoaindarras van en contra de un proyecto que no nos gusta. Y, desde luego, el Partido Socialista ya dejó claro que este proyecto no le gusta, y por eso ha hecho todos los trámites que ha tenido que hacer. Y, desde luego, ese día también tenemos claro que votamos que sí a las dos cosas, a presentar alegaciones, que además incluimos todas las parciales, pero también incluimos la petición que había desde el departamento técnico, contemplando todas las posibilidades. Y también incluimos, a la tarde, porque entendíamos que tendríamos que respaldar eso. Y lo dijimos ese día y por eso estamos insistiendo ahora, es importante que vayamos todos a una, porque cuando todos hablamos de que queremos defender Andoain, los intereses de los y las andoaindarras, pero luego hay que demostrarlo. Con las votaciones también tienen que quedar claro eso.

Alvarez jaunak, dio:

“Gauza ezberdinak nahastu dituzu. Hasteko, nik Batzar Nagusietako bozketaz aritu naiz eta ez Bidegikoaz. Bidegikoan, ekainean, EH Bildu abstenitu egin zen, eta gogoratzen naiz, gero irailean, nola esan genuen, hemen bakoitzak bagenuela erantzukizun bat zela, guk, ordezkariak, herritarren ordezkari garen heinean, Aldundiari esatea proiektu hori ez dugula nahi eta gero gure alderdiekin, gure alderdiko kideekin Gipuzkoakoekin eta beste nazio mailakoekin, konbentzitzea beraiek egitasmo hori ez dela ona Andoaintzat eta andoaindarrentzat, eta guk hori egin dugu. Horregatik abstenitu zen ekainean eta ondoren kontra bozkatu zuen, hori alde batetik.

“Gero, Batzar Nagusietan, ez didazu erantzun Batzar Nagusietan zergatik Andoainen aurkeztu zen moztio berari Alderdi Sozialistak ezberdin erantzuten dion. Alderdi Sozialistak, zergatik esaten duzu CII proiektua geratu behar da eta Batzar Nagusietan esaten zaio, esaten du alegazioak CII proiektuari egin behar zaizkiola. Hor dago. Hor daukazu zuen kontraesana eta da egoera hau hobekien definitzen duen gaia. Hau da. Andoainen. PSE-EEK esaten du CII proiektuaren kontra dagoela, baina benetan urratsak eman behar direnean ez duzue urratsik eman eta Batzar Nagusietan, egun hartan, zenuten urrezko aukera



hau geratzeko.

“Eta gero esaten duzue zer gertatuko litzateke alegazio partzialak ez balira aurkeztu. Gure ustez, udalak esan behar zuen, Osoko Udalbatzarrak erabakitakoa eta horretarako geneuzkan ingurumen teknikariaren txostena, udal arkitektoaren txostena, geneuzkan txostenak nahi haina, geneukan, gehiengo politikoak eta jendearen babesa esateko, proiektu hori ez da egingo Andoainen. Eta hori da gure ustez egin behar zena, ez alegazio partzialak aurkeztu, zeren alegazio partzialekin hasten zenean, atea irekitzen duzu CII proiektua egiteari, eta gure ustez, egin behar zen CII proiektua egiteari atea itxi, eta horretarako, zeuden arkitektoaren txostena, ingurumen teknikariarena, gehiengo politikoa zegoen eta, gainera, herritarren babesa zegoen. Zeuden elementu guztiak CII proiektua geratzeko eta CII proiektua ez dela egin behar esateko. Horixe da.”

Jarraian, Santana andreak, Elkarrekin Podemos udal taldeko eledunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Yo quiero hacer hincapié en una cosa, que yo estuve en Bidegi el día que se presentaba, había que votar y se votaba el pliego para el proyecto, era lo que se votaba y sí que es verdad que nosotros votaremos en contra, Bildu también votó en contra, y el PSE que era el que estábamos, un poco, a ver qué es lo que hacen, porque era así, a ver qué es lo que hacen, y votasteis a favor.

“Vale que fuera un trabajo previo que había que trabajar y tal. Pero es que si estamos en que una cosa con la que no o estamos de acuerdo con que hay que pararla, hay que pararla.

“Osea, es que no se puede votar a una cosa, por mucho que venga de enero, de marzo, de abril, si tú no estás de acuerdo. A lo mejor hay que ponerse en contra de todos y decir no estoy de acuerdo, con los socios, con quien sea. A mí me da mucha pena, porque yo aquí lo que estoy viendo es que llega mayo y que todo el mundo está en período electoral y ahora va a haber rondas. A lo mejor puedes hacer un spoiler, pero es que a ver qué es lo que nos vas a contar, porque te quiero decir, Sra. Lainez, se lo digo sinceramente, desde el corazón, todos sabemos ya qué es lo que queremos, queremos que no se haga. Queremos que se paralice. Entonces, ¿qué negociación va a haber? ¿Una negociación de vender los oídos a sus socios de Gobierno? Que están diciendo que sí o sí se va a hacer, y da igual, se va a hacer. Se lo he oído al Sr. Goenaga. En la misma comisión que hubo en septiembre a la mañana, que lo dijo.

“A mí me parece que hablando se entiende la gente, que hay que hablar, hay que negociar, pero, ¿qué vamos a empezar la casilla, en el punto que estábamos al principio? ¿Para que pase en mayo, y luego pasa a mayo y haciendo lo que nos da la gana? Porque esa es la sensación que me da a mí, personalmente.

“Es una sensación personal que tengo, entonces, un poco, pues sí que me gustaría saber qué estamos esperando las alegaciones, para que, según las alegaciones, pues, vamos a ver qué es lo que contemplan o no. Pero, claro, teniendo en cuenta que nosotros estamos en contra, y sí que es verdad que podíamos apoyar las alegaciones en base a que, si no lo tenemos que comer con patatas, por lo menos, que tengan en cuenta algo, pero, partiendo de la base de que nos parece que esa carretera no se tiene que hacer. Entonces, si todos estamos de acuerdo, que parece ser que sí que estábamos, los tres grupos de acuerdo, está claro que aquí el PNV para eso han sido coherentes, se han abstenido, porque es más políticamente correcto abstenerse que decir que no en las fechas en las que estábamos, porque nunca han dicho que sí, entonces, ¿a qué estamos jugando?. Osea, porque yo te quiero decir, yo le veo como una ciudadana normal y digo ¿pero esto qué es?”.

Alkate andreak, erantzuten du:

“Yo creo que en campaña electoral no estamos ni ahora ni hace un mes, sino que ya llevamos mucho tiempo, y en ese sentido ya se ven las distintas posiciones y los distintos planteamientos que se van haciendo, y tratar de desviar la atención y de no ir a los puntos importantes, que son los que todos nos interesan.

“Con respecto a eso, desde luego, contradicciones hasta donde nosotros sabemos, y lógicamente nosotros siempre vamos a hablar del posicionamiento del Grupo Municipal Socialista de Andoain, a nosotros, pues hay, otros muchos partidos que también, votan diferentes cosas dependiendo de en qué estamento estén votando.

“Y en ese sentido, desde luego, tenemos claro también que si la partida de los 476.000 euros va a llegar a Andoain es porque el Partido Socialista ha hecho una apuesta para que eso llegue a Andoain. En



ese sentido es importante también, dejarlo aquí claro, hasta donde yo sé, incluso los Presupuestos Generales del Estado, no solo Bildu también nos ha votado a favor, sino que Elkarrekin Podemos también los ha votado a favor en Madrid, también el PNV y los ha votado a favor en Madrid. Osea que, bueno, en ese sentido, creo que es también importante hacer mención a todo ello, porque aquí, cuando nos interesa, unos votamos unas cosas por un lado y otros votamos otras cosas por otro lado, pues, bueno, me agrada que ustedes se rían, porque eso quiere decir que estamos de acuerdo con lo que estamos diciendo y las contradicciones que todos aquí tenemos.

“Hasta hace muy poco tiempo pedir cosas en Madrid y que llegará dinero de Madrid, aquí, pues era imposible, era impensable para algunos grupos, y ahora mismo, pues están negociando presupuestos del Estado, lo cual además nos alegra un montón, y creo que es muy positivo para todas y todos, porque así también salimos beneficiados, y si el Ayuntamiento de Andoain sale beneficiado al respecto, pues, desde luego, seremos todavía más positivos al respecto. Mila esker.”

Jarraian, berriro ere, Izagirre andreak, EAJ/PNV udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Nik, bakarrik gogorarazi nahi dut, gu gai honen hasiera-hasieratik babestu dugula CII proiektua. Iruditzen zaigu herritarren alegazioekin CII proiektua hobetu daitekeela eta alegazio horien erantzunaren zai gaude, ikusteko zertan geratzen den. Baina, nik uste dut EAJK alderdiak hasiera-hasieratik koherente izan dela eta babestu duen proiektua bultzatu duela.

“Santana andreari esan nahiko nioke, mozioan EAJ abstenitu zenean, ez zela abstenitu iraila zelako eta epe labur batean hauteskundeak zirelako, eta egoera hau zetorrelako. Guk garbi esan genuen, gure bozkan garbi adierazi genuen gure abstentzioa zergatik zen, eta garbi esan genuen ere abstenitzen ginela, baina proiektuaren aldekoak ginela. Hori garbi utzi genuen eta gure abstentzioa zetorren eskaera herritarren multzo handi batek baten eskutik zetorrelako, baina ez garai elektoraletan sartu behar ditugulako. Eta gu bozketa horretan, gure abstentzioan, garbi esan genuen proiektuaren aldekoak ginela, eta hori mantentzen jarraitzen dugu. Eta hemen bakoitzak hartzen du pintzekin nahi duena eta, beste gauza batzuk ahaztu egiten dira esatea, ze askotan esan da kontrako bozkarik gabe bai, kontrako bozkarik gabe onartu zen mozio hori. Ez zen aho batez onartu, gehiengo batez onartu zen, baina bozketa horretan, berriro diot, EAJK garbi esan zuen proiektuaren aldekoak ginela.”

Alkateak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Beste galde-erregurik ez balego, ba gaurko udalbatzarra amaitutzat emango genuke. Eta eskertzen diegu denei gurekin izateagatik.

“Decíamos que, si nadie tiene más ruegos y preguntas, y teniendo en cuenta que tampoco hay público, damos por terminada la sesión y agradecemos a todas las personas que nos han seguido y han querido estar con nosotros. Mila esker.”

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du ohiko batzarraldia, 19:30 minutu zirenean. Behin-behineko idazkariak batzarraldiari dagokion agiri hau idatzi eta alkateak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorriz Toki Erakundeen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, Behin-behineko idazkaria naizen honek, ematen dut.

O.E.

Alkatea

Behin-behineko idazkaria

